



TXIKITTO!

2024ko urtarrila 221. zenbakia



BASERRIA EZAGUTZEN

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK	11-13
IKASLEEKIN	4-5	LEHIAKETA	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA	15
AITXITXA-AMAMEKIN .	8-9	ZU BAI MARGOLARI ...	16
BERBETAN			
PLAY BACK LEHIAKETA	10		

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





- Jaio berri bat Afrikan jaiotzen bada, ze koloretakoak dira beraren hortzak?
- Jaio berriek ez dituzte hortzik.



- Lasterketa batean 100 pertsona daude. Bat erortzen bada, zenbat pertsona geratzen dira?
- Bat, gainontzekoak korrika jarraitzen dutelako.

- Bost asto daude, Na, Ne, No eta Nu deiturikoak. Zein da falta dena?



- Hala esan zuen behin Lazkao Txikik; ezagutzen zuela azken 50 urteak ia-hilda zeramatzan emakume bat.
- Zein? Zein? – galdetu zion lagun batek.
- Kasilda, motel! Kasi-hilda!

- Jauzi egin zara??
- Ez, lurra triste zegoen eta besarkada bat ematea erabaki dut.





BASERRI MUNDUA GERTUTIK EZAGUTZEN

La Salle Isasi ikastetxeok baserriaren inguruko lanketa egin dute eta bertako tresnei, lanak egiteko moduei, ohiturei eta abarrei buruz ikasteko aukera izan dute. Hona hemen euren azalpenak.



BIDEOA



LUKA TALAN
10 urte



Baserriko tresnen artean hauek ditugu: sega, belarra mozteko; aitzurra, harea eta ortua mugitzeko, eta produktuak laguntzeko; hauspoa, sua itzaltzen doanean, berriz pizteko; danbolina, gaztainak erretzeko, eta abar.



**JOEL
'RANVEER'
KUMAR
10 urte**



Tresnekin jarraituz, kaikua esnea jasotzeko eta, batez ere, mamia eskuz prestatzeko tresna da; galbahea, garia irinetik bereizteko erabiltzen da; kriseilua, memorian dagoen lanpararik zaharrena da; akuilua, baserritarrek ganadua gidatzeko erabiltzen duten tresna; eta igitaiak, adibidez, segaren funtzio berdina du.

**IZAN
MOVILLA
10 urte**



Beste tresna batzuk aipatzeagatik, trontza, adibidez, enborra zeharka mozteko erabili izan da baserrian; goldea, ildoak kentzeko eta gauzak landatzeko; eta aitzurra, landaketa-zuloak egin eta lurra mugitzeko.

**JONE
TUEROS
10 urte**



Baserriko lanak ere landu ditugu eta, bertan, egurraren mozketa aipatu daiteke. Baserritarrek egurra mozten dute, gero neguan tximinia piztu ahal izateko. Bestalde, belar mozketa ere badago. Belarra mozten dute, poltsa handietan sartu eta gero, neguan, animaliei jaten ematen diete.

**IZARO
GUERRERO
10 urte**



Ortu-lanketa ere aipatu behar dugu baserriko lanei dagokienean. Baserritarrek ortuak dituzte eta barazkiak, fruituak eta loreak landatzen dituzte. Bestalde, animalien zaintza ere badago. Animaliak zaintzen ez badituzu, ez dira osasuntsuak egongo: birusak eta gaixotasunak hartuko dituzte eta, zaintzen badituzu eta jaten ematen badiezu, osasuntsuago egongo dira.



AMAÑA

Joan den azaroaren 29an, urtero bezala, San Andres eguna ospatu genuen. Arratsaldean ikasleen bertso-emanaldia izan genuen; ondoren, euskal dantzak egin genituen eta gurasoek ere parte hartzeko aukera izan zuten. Bukatzeko, otarren zozketa eta pintxo jana izan genituen. Horrez gain, Euskararen Eguna ospatzeko ere aprobetxatu genuen eta eskolako ikasle guztien artean “AMAÑAN ERE EUSKARAZ” leloa osatu genuen. Abenduaren 22an Egogain eta San Andres egoitzak bisitatu eta bertakoekin bat eginik gabon kantak abestu genituen.



URKIZU

Abenduaren hasieran 6. mailako ikasleak Atzegira joan ginen bisitan, eta oso harrera ona egin ziguten. Eskerrik asko! 3. ziklokoek Txiki ziklok antolatutako “Ama Itsasoa” dokumentala ikusi zuten Coliseon. Hileko bigarren astean zehar, hurrek sortutako eta erakusketan partekatutako gabon postalen leihaketa izan genuen. Artista kuadrilla bikaina daukagu eskolan! Sari banaketa, “Ezetz asmatu” jaiarekin batera ospatu genuen, eskola osoak, aretoan. Primerako giroa izan genuen! Tinkok eskainitako “Orkestra lurtarra” filmeaz gozatzeko aukera ere izan genuen abenduan. Eta hori gutxi balitz, oporrak hartu aurretik, Olentzeroren bisita jaso zuten eskolako txikienek eta opariz gainezka etorri zen gainera.

ARRATEKO ANDRA MARI

Poliki-poliki hasi gara ekintza batzuk prestatzen, hauek dira momentuz egingo ditugunak: urtarri-laren 22tik otsailaren 2ra arte, Lehen Hezkuntzako 1.2.3 eta 4. mailako ikasleak kiroldegira joango dira igeriketa-ikastaroa egitera. Otsailaren 8an Aratosteak ospatuko ditugu urtero bezala. Laster dantzak entsaiatzen hasiko gara eta mozorroak prestatzen. Gora Aratosteak!!!! 3. zikloko ikasleek abenduan Zahar egoitzara egin zuten bisita polit eta aberasgarri hau zuekin partekatu nahi dugu argazki honen bitartez.





ITURBURU

Denbora gutxi pasa den arren, 2023ko abenduaren 22a iazko urteko kontua da, jada 2024. urtean sartu berri gaudelako. Gauza da, ohi duten bezala, Mari Domingi eta Olentzero gurera etorri zirela eskutitz batzuk jaso, opariren bat ekarri eta gehien bat sorpresa galanta ematera. Guk gogoz abestu genien eta Gabon gaueko emozioa pixka bat aurreratu ziguten. Eskerrik asko bikote eta datorren urtean ere, irrikitan itxarongo zaituztegu. Abenduaren 23rako, kantu jaialditxo bat prestatu genuen oporrak ondo hasteko eta mailaka kantu bana prestatu zuten ikasleek. Hori ere une polita izan zen!



LA SALLE

Abenduaren 1ean euskararen eguna ospatu genuen eta euskal musikarekin era martxosoan hasi genuen eguna. Egunean zehar, eskola guztiak parte harturik, hainbat ekintza egin genituen eta primeran pasa genuen. Abenduaren 4 eta 11ko asteak LH4ko ikasleek igeriketa ikastaroak izan zituzten. 20an goizean, Olentzero eta Mari Domingiren bisita izan genuen eskolako patio txikian eta HH eta LH 1-2ko hurrekin kontu kontari eta kantuan ibili ziren eta HHkoen gabonetako jaialdia ere ospatu genuen. Arratsaldean, LHkoena egin genuen. Festa polita izan zen!



ALDATZE

Inspira STEAM nesken bokazio zientifikoa eta teknologikoa suspertzen duen proiektu aintzindatua da. Gure LH6ko ikasleek aurten proiektu honetan parte hartuko dute. Horretarako zientzia, ikerketa eta teknologi munduko emakume profesionalak gure ikasleekin mentoretza lana egingo dute, hauei gaiaren inguruan dakitena azaltzeko.



SAN ANDRES

Hiruhileko bakoitzaren bukaeran egin dugun lana idatzi eta gurasoen aurrean aurkezten dugu. Aurten, Gabonetako opor aurretik landutako gaia, oraingo honetan geografia, familiei aurkeztu genien: gure nahiak eta proposamenak, Lurraren egitura, mapen historia, Espainiako mapa fisiko eta politikoen maketak, zergatik dauden mapa desberdinak, "pi" zenbakia... Arratsaldeko bostetan hasi zen aurkezpena eta argazkian ikusten den bezala, familien partetik harrera oso ona izan genuen. Urduri geunden, baina primeran atera zitzaigun!





Higinia:

«Jendea eta giroa dira Eibartik gehien gustatzen zaidana»



Higinia eta Miren amama eta biloba elkartu ditugu oraingoan. Iturburun ikasten du Mirenek, 6. mailan. Goxo hartu gaituzte biek amama eta aitxixaren etxean elkarrizketa egiteko. Eta hemen duzue bertan izandako solasaldiak eman zuena.

Kaixo, amama, zelan zaude?

Oso pozik. Era guztietako esperientziak probatzea gustatzen zait eta hau oso polita da.

Noiz eta non jaio zinen?

Quintana de la Serenan, Badajozeko herri txiki batean, 1941eko urtarrilean.

Zergatik etorri zinen Eibarrera?

16 urte nituela etorri nintzen. Badajozeko herria ez zegoen lanik, eta etxean asko ginen. Gurasoek ez zuten han etorkizunik ikusten eta denak elkarrekin etorri ginen.

Aldaketa handia izan zen?

Gehien kostatu zitzaidana izan zen han lagatzea amama eta lagunak.

Zerk harritu zintuen gehien Eibarrera iristean?

Pisuak altuak zirela, gure herrian, asko jota, hiru solairukoak ziren eta hemen dorre luzeek harritu ninduten.

Zenbat zineten etxean?

Zortzi, sei anai-arreba eta gurasoak.

Eta zelan banatzen zenituzten etxekolanak?

Anai-arrebok elkar zaintzen genuen. Eta etxekolanak nesken artean egiten genituen, nagusiena mutila zen eta hark ez zuen ezer egiten, amak babestu egiten zuen gainera. Baina lehen horrela zen.

Zelan gogoratzen dituzu eskolako urteak?

Oso oroitzapen onak ditut. Baina etxean lan asko genuen eta ez nintzen nahi beste joan eskolara.

Zelako ikaslea zinen?

Nahiko ona. Pena izan zen eskola hain goiz lagatzea baina etxean lagundu behar genuen. Hona etorri nintzenean joan nintzen akademia batera, euskaltegira... Gurasoek ahal izan zuten guztia eman ziguten.



Nolako haurtzaroa izan zenuen?

Oso zoriontsua izan zen. Kanean jolasten genuen asko. Neskak eta mutilak elkarrekin, eskolan ere horrela egoten ginen-eta. Adin desberdinetakoak elkarrekin.

Zelan konpontzen zineten eskolan Internet gabe?

Dena eskuz egiten genuen. Irakasle onak izan nituen, oso ondo transmititzen ziguten ikasi beharrekoa, baina aldi berean oso adi egon behar ginen.

Zertara jolasten zenuten?

Gauza askotara. Txingoka, sokasaltora, laguna gainean hartu eta lasterketa egitera, kanikak lur azpian sartzen genituen...

Zein zen zure jateko gustokoena lehen eta zein da orain?

Amamak egiten zuen eltzekoa, garbantzuekin. Orain gehien gustatzen zaidana entsalada da.

Zelan gogoratzen duzu gaztaroko Eibar?

Eibarrera iritsi ginen lehenengo eguna dut gogoan. Trenez iritsi ginen eta han zeuden zain nire aita eta neba. Sekulako ekaitza ari zuen, dena ilun. Hiri handia iruditu zitzaigun.

Nola hartu zintuzten Eibarrek?

Oso ondo, hasieratik sentitu nintzen gustora hemen. Lagunak ere segituan egin nituen, eta gaur egun arte eutsi diogu laguntasun horri.

Zer da Eibartik gehien gustatzen zaizuna?

Jendea eta giroa. Kalera irten eta beti aurkitzen duzu baten bat. Ondo bizitzeko aukera ematen du Eibarrek.

Noiz sartu zen telebista zuen etxean?

Oso berandu. Erakusleihoetan gelditzen ginen telebistei begira. Eta kotxea zure ama jaiota zegoela. Hozkailua ere oso berandu sartu zen etxean, baina ama oso ondo konpontzen zen jatekoa ez hondatzeko.

Eta nora joaten zineten oporretan?

Azkoitira. Azkenean amama ere etorri zen gure atzetik Badajozetik, eta Azkoitin gelditu zen. Autobusez joaten ginen.

Zelan konpontzen zara teknologia berriekin?

Justuan. Ez zaizkit asko gustatzen. Baina aldi berean telefonoa asko erabiltzen dut, biloben argazkiak eta ikusteko.

Zein izan da asmakizunik onena?

Labadora, dudarik gabe.

Euskera nahikoa egiten da Eibarren?

Ez.

Eta zer egin dezakegu bultzatzeko?

Tematu, gogoia jarri eta egin.

Zenbat aurreratu dugu genero-berdintasunean?

Gutxi. Goikoen zain bagaude jai daukagu, guk egin behar dugu indarra eta borroka.

Aratosteak 2024 **PLAY-BACK** lehiaketa

Noiz eta non: Otsailak 11, igandea, Untzaga plazan
17:00etatik aurrera (16:30erako agertu)

Norentzat: LH 5. eta 6. mailetako ikasleentzat

BETEBEHARRAK:

- Mozorrotuta etorri
- Taldeak, asko jota, seikoak
- Behin parte hartuko da
- Abesti euskaldunak erabili

IZEN EMATEA

(OTSAILAREN 2ra arte)

- Abestia MP3 formatuan grabatu
- Izen-emate fitxa bete (eskolan eskatu) eta bidali abestiarekin batera hona: banaketa.etakitto@gmail.com

SARIAK

*Interpretazio, koreografia eta
mozorro onenari.*

Parte-hartzaile guztiek jasoko dute oparia




LETRA - ZOPA

B	A	L	E	A	O	E	K
J	S	Y	O	V	R	S	A
L	I	I	U	L	X	K	N
E	M	R	E	X	R	A	G
H	N	A	A	G	Z	T	U
O	E	R	F	F	W	U	R
i	O	U	N	C	A	A	U
A	X	U	N	T	X	i	A

KANGURUA
ERLEA
LEHOIA
BALEA
KATUA
JIRAFIA
UNTXIA


6 DESBERDINTASUNAK

BILATU 6 DESBERDINTASUNAK






LOTU PUNTUAK



LABIRINTO A





7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **OTSAILAK 7** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa JONE, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko motxila zuretako! ZORIONAK!

**Brunaren abestia** 6 urtetik aurrera

Lehen eskola-eguna da eta Brunak lagun berri asko egin ditu. Guztien izenak gogoratu nahi ditu, gero aitonari banan-banan aipatzeko. Eta, horretarako, zer hobe abesti bat baino?

**Itsasoaren deia** 8 urtetik aurrera

Zuhara lekuz kanpo sentitu izan da beti. Ingurukoekin asmatu ezinik, ezberdina, arraroa sentitzen da. Besteen aldean hutsala eta aspergarria. Bere urrezko adatsekin eta ozeanoaren koloreko begiekin, munduan galdua. Bat-batean, azaleko alergia batek zabalduko du familiako sekretuen kutxa.

**Ekoline** 10 urtetik aurrera

Ekolineren zoria txakur zaindari bihurtzea da, baina etxaldea zaindu ordez, margotzen igarotzen du astia. Denborapasa honek landa eremutik borborka ari den Parisera erbesteratzera bultzatuko du. Erakusketa Unibertsala laster batean etorriko da, eta hiriburuak inoizko garbiena egon behar du munduko bisitariak hartzeko!

**BITXIKERIAK**

30 minututan, giza gorputzak ia litro erdi ur irakiteko adina bero askatzen du.



Krokodiloek ezin dute mihia atera.

Goizetan esna egoteko, eraginkorragoak dira sagarrak kafeina baino.





KOLORETAKO UMEA

Bazen behin neska alai bat Amelia izena zuena. Egun batean, parkean lorez betetako zuhaitza ikusi zuen eta pentsatu zuen...

- Sartu egingo naiz! Eta... hara! Tximeleta bat!- Tximeleta hartu zuen eta bat-batean... AAAH! Koloretakoa naiz! Ama, begira! Hegoak dauzkat!!



Amelia oso pozik zegoen inoiz baino politagoa ikusten zelako. Parkera joan zen eta hor zegoen Oihane. Oso polita zegoela esan zion eta Ameliak erantzun zion:

- Ba... nere amari ez zaio ezer gustatzen ... Tximeleta ez izanda polita naizela esaten dit... Denok garela politik garen bezalakoak!- Oihanek, pentsatu eta zera esan zion:

- Zure amak arrazoia du!

Parkean zegoela, ipotx bat, Niko izena zuena zegoen eta bere tximeleta zela esan zion. Ameliak tximeletak ziztada eman ziola esan zion eta oso ederra zela ere. Nikok lasai egoteko esan zion ez ziola ezer egingo eta jolastea nahi zuela. Ameliak, amak esandakoa gogoratuz, tximeletari kolorea kentzeko eskatu zion eta hirurek parkeko zuhaitzean jolasten amaitu zuten eguna.

MARTINA MORILLO

ZU BAI MARGOLARI!

